

Bakerako bidea

Euskaldunon Egunkaria, 1993-12-21: 2.

Bakea gauza ederra da. Denok nahi duguna, eta gehienok bilatzen duguna. Batzuetan geure barrukoa da, bestetan gizakien artean hautsitakoak osatzea eskatzen duena. Zatituen arteko gorrotoa gainditzearen ahaleginak nolakoak izan behar duten asmatzea da lehenengoa auzia. Legezko den indarraren bidez egiteko lana dela uste dute batzuk, indarra berekin dutenak, eta beste batzuk zailago den eskuzabalaren bitartez gauzak konpontzea hobe dela uste dutenak. Hauetakoen izenean, Setien gotzaiak egun hauetan berresan digu "Justizia eta Askatasuna" behar direla bakearen oinarri. Euskaldunok sufritu dugu denetarik, baina ez dugu oraindik ikasi Euskal Herriaren betiko arerioak izan direla geure oker hauetaz baliatu direnak gu zanpatzeko. Orain bezala: Hegoaldean Legezko Estatutu baten edukina zor digunak ez du hitza bete nahi, eta egoera honetan, demokratikoki aukeratuak izan diren Legebiltzarra eta Jaurlaritza daude alde batetik, eta hau behar adina fermotasunarekin esijitu gabe, eta talde armatuak ez dio utzi nahi diktadura garaian erroetatik askatasuna lortzeko ekin zion bideari Elkarrekin joan behar luketenak bi multzo horretan jarri dira, eta hasi dira erasoka, inoiz heldu behar ez genuen punturaino. Ertzain euskaldun eta abertzale baten hilketa honen ondoren konturatu da Euskal Herria osoa, bakea egin behar dela! Nola ordea!? Irlandarrak eta ingelesak bideratu dute hauzi zaharra, eta Arafat terrorista krudela eta terrorista krudelak izandako juduak heldu dira besarkatzera. Non ditugu geuk besoak eta burua bihotzean ez bada?!